# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 1079

*104/2022 EBAZPENA, otsailaren 17koa, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Kudeaketako zuzendariorde lanpostutik kentzen baita Mónica López Ortiz andrea, berak hala eskatuta.*

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearen maiatzaren 10eko 68/2010 Ebazpenaren bidez, Mónica López Ortiz andrea Osakidetzako Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Kudeaketako Zuzendariorde izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Mónica López Ortiz andrea Osakidetzako Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Kudeaketako zuzendariorde kargutik kentzea, berak hala eskatuta; eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2022ko otsailaren 21ean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Osakidetzako Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2022ko otsailaren 17a.

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentea,
CARLOS PEREIRA RODRÍGUEZ.